

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Gatika



Aurkibidea

Udalerria: Gatika

Sarrera



Bizkaiko erdialdean dagoen barrualdeko udalerria da, Mungialdea eskualdean kokatutakoa. Iparraldean Plentzia, Lemoiz eta Maruri-Jatabe, hegoaldean Loiu eta Derio, ekialdean Mungia eta mendebaldean Urduliz eta Laukiz ditu mugakide. Herriguneaz gain auzo hauek osatzen dute herria: Butroe, Garai, Gorordo, Igartua, Libarona, Sertutxa, Ugarte eta Zurbano. Herri honetako ondare garrantzitsuena ezbairik gabe XVI--XV. mendeetan eraikitako Butroeko gaztelu gotikoa da, izen bereko auzoan kokatutakoa. Euskal hiztunen portzentaje esanguratsua dela-eta UEMAKo (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea) kidea da.

- **Biztanleak:** 1.551
- **Euskaldunak:** %77,85

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **5**
- Zintak: **7**
- Pasarteak: **22**
- Transkribatutakoak: **5**
- Audioak: **19**
- Bideoak: **0**

Proiektuak

- Alfabetatzerako Langaiak. Bizkaieratik Baturantz
- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- IRALERen Bizkaiera Bilduma
- Rudolf Trebitsch-en euskal grabazioak (1913)

Hizlariak

Bernardino Arostegi (1902)

1902an jaioa da. Olabarrigane baserrian bizi izan da. Ipuin eta istorio asko ezagutzen ditu.

Bernardo Fullaondo Iturrioz (1933)

Gatikako Santuneko Gorordo auzoan jaio zen 1933ko abuztuan. Aita Gatikako kamioilaria zuen eta ama Lezamakoa etxeakoandrea. Sei neba-arreben artean gazteena zen bera. 12 urte izan zituen arte Gatikako eskolan ibili zen eta 13 urterekin morroi bezala etxetik kanpo bidali zuten gurasoek. 14 urterekin berriro ere etxera ekarri zuen aitak eta honekin batera lanean jardun zuen urte askotan zehar. 18 urte zituela, gidabaimena atera eta hortik aurrera, bizi guztia bidean eman duela kontatu zigun irribarre handi batekin. Hasiera batean bendejerak Portugaletera eramaten, gauza ezberdinak alde batera eta bestera garraiatzen...aritu zen, baina soldaduska amaitu eta 23 urte zituela, Euskal Herritik kanpora joan zen kamioilari lanetan. Bidean gertatu zitzaizkion istorio asko kontatu zizkigun, 46 urterekin erretiratu zen arte. Emaztea herri berekoa zen eta betidanik Gatican bizi izan ziren bere hiru seme-alabekin.



Jose Goikoetxea (1881)

1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa. Apaiza zen eta 32 urte zituen grabaketa egin zitzaionean. Euskalkia: bizkaiera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.220 eta 2.221

Maxima Rementeria (1920)

2005. urtean egindako grabazio honetan 85 urte zituen.

Paulina Zabala

Gatikarra. 1985eko uztailean egin zitzaion elkarrizketa hau HABEko "Alfabetatzerako Langaia. Bizkaieratik Baturantz" liburuaren prestaketarako.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Baserria

1.1. Piperra eta tomatea landatzen

- **Hizlaria(k):** Zabala, Paulina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Amilategi, Kruz - Elordui, Aintzane
- **Erref:** GAT-001/001
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena:** Piperra eta tomatea landatzeko eman behar diren pausoak azaltzen ditu.

Transkripzioa

Bai, lurreri in ber dako lenengo labra eta gero apurtu eta gero piperrak imiñtteko ba..., sotok iñ, satza iñ eta gero piperrak imiñi, eta gero piperrari satza tapa, ure iñ ta tapa ta ba... alan segidu yorratuten-ta, ta ba gero ba... esebes, gero urrengon ba...andi itten danen batu piperrak, ta ba eskei edo saldu edo yan-edo.

Bai yorratu piperra, lurre batu piperrari on daitten, eta gero eseberes, eurek emon arte frutue eseberes geiau. Urek koran ba, eskei edo itteko siketu itteko, batu ta plasarako esteko lebarik, yateko baya... orretarako ba urek berean, menguantean ba batu ta eskei. Tomate bere, labrau ta gero imiñi lurre ondo eta bota satza eta iñ txorkoak eta gero satzagas imiñi landare, ta landare imiñi rte bota ure eta tapa eta gero ostabere yorratu, ta ba... palutan imiñi amarrata ta ba botikegas-ta kontzerba ber, eta gero batzen danen ba ak esteko menguante serik seuk gurusunen. Eltzen danen yan ta nai batu ta saldu nai jenero. Esteko pegarík.

2. Familia eta harremanak

2.1. "Jaungoikoa" eta "Jaungoikotxu"

- **Hizlaria(k):** Zabala, Paulina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Amilategi, Kruz - Elordui, Aintzane
- **Erref:** GAT-002/001
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena:** Herriko familia bati buruz dihardu berbetan. "Jangoiko" deitzen zioten gizon bati eta "Jangoikotxu" haren semeari, baina ezizen hori galdu da jada.

Transkripzioa

Bai, hemen egon zan gizon bat ba lelau "jangoiko" esaten otsena eta gero ba "jangoiku" eta "jangoiku" eta gero ba familie euki eben eta alabak hainbet, baia semerik bat baiño ez, eta gero beste seme bakarrari "jangoikotxu" esaten otsen, ta ointxe ba hil da larogeta zazpi urtegaz hil da, eta ba oin a esan deu jenteak jangoikoa nork administratuko ete dauen akaba dala jangoiku ta. Oin semek asko euki dittuz, baia ba oin

jangokotxurik ezin imiñi bateri ba, bat baiño ez ta, asko dire-ta, noreri imiñiko jako oin jangoikotxu, ba? inori ere ez. Bai, semek bere bai alabak bere bai badekoz, baiña oin ya ba horrek akaba dire, jangoikotxu akaba da. A bai, ba hori, horrek dekoz oin familiek ba, lehen bere izen dire horrek, batzuk izen dire zerak baiña horrek lehengoak rubiak izan dire lehengo familin danak rubiak majok, eta oin ama izen dalez morenea amatatik doaz, aman antzekok doaz, baiña majuk eta majak, baiña familie oin direz klase bittekuk: batzuk direz rubioak eta beste batzuk dire morenoak, baiña danak majuk.

2.2. Lagun guztien dirua batu

- **Hizlaria(k):** Goikoetxea, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Trebitsch, Rudolf
- **Erref:** GAT-006/002
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:02:04. **Bukatu:** 00:02:54
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena:** Gaztetan ez zuten dirurik; hala ere, lagun guztien diruak batzen zituzten behar zutena erosteko: ardoa, olioia...

Transkripzioa

Edade atan gasteak giñen eta diru gitxi eukitxen gendun. Alkarrerri esaten geutzen:

- Pantxiko, senbet diru dekosu?
- Nik, iru txiki.
- Suk, Jeronimo?
- Nik, erreal bat.

Eta alan gustion artean batuten gendun ardaa, koipea, oriyoa eta beste gausa gustiek pagetako beste. Joaten giñen jaten eta se aurpegi alegrea iminitxen gendun ikusten genduenean arrankaria ederto iminitxe. Moskorrik esin artu gendun, se diru gitxi geunken ta...

3. Aisia

3.1. Errekako arrantza kordelekin

- **Hizlaria(k):** Goikoetxea, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Trebitsch, Rudolf
- **Erref:** GAT-006/001
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:04
- **Gaia(k):**
Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- **Laburpena:** Herriko errekan loina, arrankari eta aingira asko daude. Egunez arrak karakolak eta bareak batzen zituzten eta iluntzean errekarra joaten ziren. Kordel batean amua eta arra jartzen zituzten. 20-30 kordel inguru botatzen zituzten eta gauean etxera bueltatzen zituzten. Hurrengo egunean bueltatzen ziren kordelek aingiraren bat-edo harrapatu zuten ikusteko. Behin bi libra eta erdiko arrankari bat harrapatu zuten eta merienda egin zuten.

Transkripzioa

Emen erri onetan deukogu erreka eder bat, senetan dagosan arrankari, angille eta loiñe asko. Gure bearra ixeten san egunes, arrak, karakolak eta bareak topetea eta orrek gausa gustiok sartuten gendusen piper lata utzetan. Illundean batuten ginen iru edo lau lagun eta joaten ginen kordelak erre kara botaten, baia bear asko deukea onek kordelok botatea; lelengo imini bear dire antzulueta arrak, kordelan puntetan, imintxen gendun arri bet kordela uren ganean lotu sereitxen. Ogei edo ogetamar kordel botaten gendusen eta etorten ginan etzera. Gau atan amesetan bere eitxen nendun urrengo egunean ser koiuko ete gendun. Gaubean bakotxa geure etzera joaten giñenean alkarreri esaten geuntzen lelengo ixartuten sanak geittuteko besteari. Elduten siren goixeko irurek edo laurek eta joaten giñen kordelak ataraten. Elduten giñen erre kara ta ikututen geuntzen kordelari iya tirekadaren bat emoten badeu angilleren batek. Gure posak lelengo kordelean koyuten bagendusen iru edo lau angille. Bein koiu gendun libre bi txerdiko [arrankari bet eta agas ein gendun berinye bat].

4. Ohiturak eta bizimodua

4.1. Lukiaren eta txalupa-zainaren ipuina

- **Hizlaria(k):** Goikoetxea, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Trebitsch, Rudolf
- **Erref:** GAT-006/004
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:02:59. **Bukatu:** 00:04:04
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena:** Txakurrengadik ihesi doan lukiaren (azeria) eta txalupa-zainaren ipuina. Erreka hegal batera heldu eta erreka zehartzeko zegoen txalupa-zainari zera esan zion: "Beste aldera pasatzen banauzu, esango dizkizut hiru egi."

Transkripzioa

Txakur batzuri iñes edo eskapan doala beiñ luki bet basorik baso ta solorik solo esin geiaoaan kaderak altzetan situsela, eldu san ibei ertz edo eskiñe batera. An egoan gixon bat botetxu bet uretan eukela eta lukiek esan eutzen "beste aldera pasaten banosu, esango deusudes iru egi". Konforma san gixona eta lukiek esan eutzesan iru egi onek: "Lenengoa: estao garie lango bedarrik. Bigarrena: Estao egune lango argirik. Irugarrena. Ni bario pasajeru obarik pasaten espadosu fraka-sarrak estosus faltako". Entzunik boteruek iru egi onek, ikeratute lotu sen lukien jakitxuriegas.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Mañariko senar-emazteen istorioa (GAT-007/002)

Mañariko senar-emazte batzuen kontua.

2. Mozkorraren istorioa (GAT-007/003)

Mozkor baten istorioa.

3. Atxuriko Florentzio ardozalearenak (GAT-007/005)

Atxuriko Florentzio ardozalearen istorioa.

4. Atxuriko Florentzioren heriotza (GAT-007/007)

Atxuriko Florentzioren kontuak, pneumoniaz hil zenekoa.

5. Umetan kanpandorrea harrapatuta (GAT-007/009)

Umetan kanpandorrera igotzen ziren, kanpaiak jotzera. Txori habiak harrapatuzera joaten ziren. Kanpandorrea harrapatuta geratu zirenekoa kontaktzen du.

6. Umetan kanpandorrea harrapatuta (jarraipena) (GAT-007/010)

Kanpandorrea harrapatuta geratu zireneko kontuaren jarraipena.

7. Telefonoa, parte txarrekoa (GAT-007/013)

Mineralak kargatzen ibiltzen ziren bere gurasoak gaztetan. Gauza berriak parte txarrekoak zirela esaten zioten. Telefonoaren adibidea kontaktzen du.

8. Hegazkinarekin, autoekin eta motozikletarekin harrituta (GAT-007/014)

Gurasoen garaian, hegazkinak ikusi zituzteneko pasarte barregarria. Autoetako gidariak parte onekoak ezin zitezkeela izan esaten zioten. Motozikletakoak erori egingo zirela uste zuten gurasoek.

9. Bizikletak, parte txarrekoak (GAT-007/015)

Bizikletak parte txarrekoak direla uste zuten lehengoek. Pasarte bat kontaktzen du.

10. Bizikletarekin lehenengoz ibili ziren biren istorioa (GAT-007/016)

Tabakozale bi bizikletarekin lehenengo aldiz ibili zireneko pasarte barregarria kontaktzen du.

11. Bizikletarekin lehenengoz ibili ziren biren istorioa (jarraipena) (GAT-007/018)

Tabakozale bi bizikletarekin lehenengo aldiz ibili zirenekoari buruzko kontakizun barregarria kontaktzen du.

12. Peru eta Marixeren ipuina: garia ebakitzeko zerra (GAT-007/020)

Peru eta Marixeren ipuina kontaktzen du.

13. Peru eta Marixeren ipuina: kornetarekin hildakoak pizten (GAT-007/021)

Peru eta Marixeren ipuina kontatzen du.

14. Harrokeria kentzeko lezioa (GAT-007/022)

Berari gertatutako pasarte bat kontatzen du, harrokeria kentzeko lezioa.

15. Eustakio Larrabeiti "Eulea" eta Elbire alaba bertsotan beti (GAT-007/024)

Eustakio "Eulea" bertsolariari buruzkoak kontatzen ditu. Alabarekin bertsotan aritzen zen. Pasarte bat kontatzen du, artazuriketan bertsotan aritu zirenekoa.

16. Karlistadak, Iruñeko bataila (GAT-007/025)

Bere osaba bat gerra karlistan boluntario ibili zen. Iruñean gertatutako bataila bateko pasarte bat kontatzen du. Nafarrak gerrarako itsuegiak zirela kontatzen zioten.

17. Karlistadak, Bilboko setioa (GAT-007/026)

Karlistadetan Bilbo setiatuta zeukatela gertatutakoa kontatzen du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-02-15

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com